



2009ko DANBORRADA KO KARTELA **AUKERATZEKO LEHIAKETA - ELGOIBAR**

Elgoibarko Udaleko Kultura Batzordeak lehiaketa antolatu du 2009ko Danborradako kartela aukeratzeko.

OINARRIAK

LEHENA.- Lehiaketa honetan 18 urtetik gorako edozeinek har dezake parte.

BIGARRENA.- Teknika libre izango da (argazkia, diapositiba, pintura, marrazkia, collagea, e.a.). Lanak euskarri gogorrean aurkeztuko dira.

HIRUGARRENA.- Lanaren neurria honako hau izango da: A 2 edo proportzionala.

LAUGARRENA.- Ezinbestekoa izango da ondorengo testua agertzea, diapositiba bidez aurkezturiko lanetan izan ezik:

“ELGOIBARKO DANBORRADA 2009”

BOSGARRENA.- Saria **HIRUREHUN EUROkoa (300 €)** izango da.

SEIGARRENA.- Lanak Kultur Etxean aurkeztu beharko dira, **2009ko MAIATZAREN 8ko**, eguerdiko 13:00ak baino lehen.

ZAZPIGARRENA.- Lanak egilearen sinadurarik gabe aurkeztuko dira eta atzeko aldean “leloa” eraman beharko dute. Honekin batera, kartazal itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak eta NANaren fotokopia bidaliko dira, eta kartazalaren gainean lanaren “leloa” jarriko da.

ZORTZIGARRENA.- Saritu gabeko lanak epaimahaiaren erabakia jakinarazi ondoren jaso ahal izango dira. Horretarako, **HOGEITA HAMAR (30) EGUNEKO** epea izango da. Aipatutako epean lanak jaso ezean, egileak galdutzat eman dituela pentsatuko du Udalak; eta ondorioz, egileari inolako eskubiderik aitortu eta ordainik eman gabe, egoki irizten dion moduan erabiliko ditu.

BEDERATZIGARRENA.- Saritutako lana Udalaren esku geldituko da. Halaber, inprimatzeko, argitaratzeko, ezagutarazteko eta gainontzeko eskubide guztiak Udalak berak izango ditu.

HAMARGARRENA.- Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Erabakia hartuko den egun berean jakingo da epaimahaia nork osatuko duen. Epaimahaiak argituko ditu oinarri hauei buruz sor daitezken zalantzak.

HAMAIKAGARRENA.- Lehiaketara aurkezteko, goitik behera onartu beharko dira oinarriak.